

HORNIDURA SISTEMA HOBETZEKO LANEK JARRAITZEN DUTE

Bukatu dira San Martin auzoko hornidura sarea berritzeko lanak. Hurrengo hodi aldaketa Lakua-Arriagan egingo da.

AMVISAK bukatutzat jo ditu San Martin auzoko hornidura sarea berritzeko lanak. Gutxi gorabehera fibrozementuzko 10.000 metro hodi aldatu dira, zeintzuek 80 eta 400 mm arteko diametroak baitituzte. Hodi nagusiak berritzeko, obrak zanga ireki gabe egiten uzten duen teknologia erabili da. Teknologia horrek abantaila teknikoak ditu fibrozementuaren manipulaziorako, eta kostuak, obra epeak eta hondakinak murriztea ahalbidetzen du, espaloia apurtzeari lotutako molestiak desagertzen direlako.

Fibrozementuzko sareak ordeztzeko politikak Lakua-Arriaga auzoan jarraituko du, Forondako Atea, Arriagako Atea eta Arriagako Parkea kaleen artean. Aurreikusita dago otsail honetan obra esleitzea eta martxoan lanak egiten hastea. Aurrerago gainerako auzoetan egingo dira sarea berritzeko lanak (Txagorritxu, Adurtza, Ariznabarra, etab.), hirian dauden fibrozementuzko hodi guztiak kendu nahi dira eta. Izan ere, gaur egun fibrozementuzko 110.000 metro hodi daude, eta hori da sare osoaren luzeraren %15.

Beharrezko esku-hartzea, gutxienez 50 urteko hornidura bermatzen duena



Hiriko zirkulazio sistemaren antzera, hodiekin sare itxurako egitura bat osatzen dute lurpean, hodiekin sare horretako tarte guztiak hornitzeko, eta horrek eskatzen du hodiak etengabe zaintzea. **Sarea berritzea ezinbestekoa da zerbitzuak egoki funtzionatu dezan eta hodiak apurtzea edo hodiekin ihesak egotea prebenitzeko, eta horien ondorioz biztanleek kalte larriak eduki ez ditzaten, hala nola ur moztetak eta kalte materialak.**

Honelako obrek eragiten dituzten molestien jakitun izanda, AMVISA molestia horiek ahalik eta gehien minimizatzen saiatzen da, baina ez da posible denak kentzea. **Zanga eta putzu irekiak egotea gogaikarria da baina ezin da saihestu, izan ere, obrak egiten diren bitartean zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko behin-behineko hodiak jarri behar dira lur gainean, sarera konektatuta eta konpontzen ari diren zatiak ordeztzen.**

Eskerrak ematen dizkizugu lanek irauten duten bitartean pazientzia edukitzeagatik, eta beti ahaleginduko gara lanek zuentzat ahalik eta kalte gutxien eragin dezatela.

Gogoan eduki!

URAREN KUDEAKETARAKO HAINBAT JARDUNBIDE EGOKI

1 IHESAK EDO TANTA JARIOAK ZUZENTZEA

Ihesek ura alferrik galtzea dakarte eta instalazioa edo etxebizitza kaltetu dezakete, hezetasunak sortuta. Horregatik, funtsezkoa da garaiz antzematea eta konpontzea.

✓ Zaindu zure hiruhekoko kontsumoaren faktura, asko desbideratu ez dadin, ezohiko arrazoi nabarmenagatik edo aurreko urteko denbora tarte berberarekin alderatuta. Hala balitz, baliteke ihesen bat edukitzea.

✓ Begiratu kontsumoko elementuetan (txorrotak, komunak, pasoko giltzak, mahukak edo konexioak, etxeko tresna elektrikoek ur hartuneak) ur tantak erortzen diren edo ura galtzen den. Txorroten kasuan, itxeko sistema higituta egotearekin zerikusia eduki ohi du, eta komunetan, deskarga sistemaren junturarekin edo sistemari eragiteko sistemaren buxadurak egotearekin.

✓ Komun batean ura galtzen dela baieztatzeko, bota elikagaietarako koloratzaile pixka bat zisteman; deskargari eragin gabe, begiratu komun ontzian kolorearen azarnak agertzen diren, horrek ihesa dagoela adierazten du eta.

Komunetako tanta jarioak eta ur galterak ez konpontzeak urtean milaka litro ur galtzea dakar.

✓ Barruan dagoen ur ihes bat antzemateko, erregistratu astebetean zure kontagailuko irakurketak kontsumorik ez dagoen uneetan (adibidez, gauean) eta egiaztatu aldaketarik ote dagoen.

✓ Ura galtzen duen txorrota edo komun bat konpontzeko gai ez zarela uste baduzu, komeni da profesional batekin harremanetan jartzea. Gauza bera egingo duzu beti, hodiekin edo ur zirkuituetako ur ihesak zehazki lokalizatzeke eta konpontzeko (berokuntza sistemak edo aire girotukoak, galdarak edo erradiadoreak). Jo beti iturgintzako instalatzaile baimenduaren txartel ofiziala duten profesionalengana.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org